

IKERKETA PROIEKTU SARIA (2025)

Nafarroa Garaiko bertsolaritzari buruzko ikerketa sustatzeko

DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen bidez Nafarroa Garaiko bertsolaritzari buruzko ikerketa zientifikoa bultzatzeko xedea du Bertsozale Elkartek.

Halaber, Nafarroa Garaian gauzatzen den bertsolaritzaren ikerketa eragiteaz gain, deialdi honen bitartez ikertzaile gazteak edo hasiberriak lehen urratsak ematen lagundu nahi ditugu. Edozein jakintza esparru oinarri hartuta egiten ahalko da Nafarroa Garaiko bertsolaritzari buruzko ikerketa. Horretarako baina, unibertsitateko irakasle doktore baten zuzendaritzak bermatu behar du proiektua, ikertzailea bera doktore ez den kasutan.

Deialdi honetan, gradu amaierako lanen eta master amaierako lanen **ikerketa proiektuak** ez ezik, beste ikerlan monografikoen **proiektuak** ere onartuko dira.

PROZEDURA

- 2025ean 4.000 euroko diru-laguntza bat esleituko da.
- Bertsolaritzaren ikerketan aditu diren lagunez osaturiko batzorde batek baloratuko ditu aurkezturiko curriculumak eta ikerketa proiektuak. Baremoak zehaztu ondotik, puntu gehien duen proiektutik gutxienezkoan doan zerrenda egingo du epaimahaiak. Batzordeak puntuazio altuenak lortu duen hautagaiaren izena proposatuko du, baita lehenetsitako hurrenkeran haren ordezkoren izenak; hautatutakoak uko egingez gero edo beste edozein gertaeraren aurrean nor saritu jakiteko. Batzordeak beharrez aurkeztutako proiektuen egileak elkarrizketatzen ahalko ditu.
- Batzordeak laguntza eskuratu nahi dituzten eskatzaileen soslaiak edo proiektuak askietsi ezean, saririk ez ematea delibera dezake.
- Ordainketa erabakia argitaratu eta 90 egunetara egingo da beranduenik. Saria bere osotasunean ordainduko da ordainketa bakarrean.
- Proiektuaren arabera eginiko **ikerketa lana beranduenik 2026ko ekainaren 20an** entregatu beharko da idatzita eta amaituta. Idazlana batzorde zientifiko batek ontzat eman beharko du. Batzorde zientifikoak egindako ikerlana ontzat eman ezean, ikertzaileak jasotako diru laguntza osorik itzuli beharko du hilabeteko epean.

- Saritutako proiektuari dagokion ikerketa lana gauzatutakoan, Bertsozale Elkartek ikerketa lan hori argitaratzeko eskubidea edukiko du; izan ikerlanaren pasarte bat, izan idazlan osoa.
- Egileak saritutako proiektuari dagokion ikerlanaren aurkezpen bat egin beharko du, Bertsozale Elkartek adieraziko dion espazioan.
- Ikerlanen kopia bat Xenpelar Dokumentazio Zentroan artxibatuko da. Al-diz, lanak argitaratu gabeak diren artean, haiek kontsultatu ahal izateko lan bakoitzaren egilearen baimena beharko da.
- Deialdi honetara proiektu bat aurkezteak, proiektuaren egileak deialdi honetan ageri diren prozedurari dagozkion puntu guztiak onartzen dituela erran nahi du.

ESKAERAK

- Eskakerak eta behean zerrendaturiko dokumentazio guztia PDF formatuan eta e-postaz bidali behar da ikerkuntza@bertsozale.eus helbidera.
- Proiektuak deialdi honi dagokion eskaera orria bete eta helaraziz aurkeztu behar dira.
- Proiektuak aurkezteko azken eguna: **2025ko ekainaren 10a**.
- Eskaearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:
 - a) Nortasun agiriaren fotokopia (taldea bada, talde kide bakoitzarena).
 - b) Deialdi honi dagokion eskaera orria.
 - c) Eskatzailearen CVa (taldea bada, talde kide bakoitzarena).
 - d) Espediente akademikoaren kopia (taldea bada, talde kide bakoitzarena).
 - e) Doktore izanez gero, doktore izatearen frogagiria.
 - f) Doktore izan ezean, unibertsitateko irakasle doktore baten berme-txostena, aurkeztutako ikerketa proiektuaren zuzendari izango dela dioena.
 - g) Masterreko matrikularen frogagiria, master ofizial batean matrikulaturik izanez gero (taldea bada, masterra egiten ari direnena).
 - h) Ikerketa proiektua: helburuak, esparru teorikoa, aurrekariak eta metodologia (1.500-5.000 hitz).

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

- Ikerketa proiektuak beheko irizpide hauei jarraituz ebaluatuko dira:
 - Proiektuaren helburuak eta interesa
 - Proiektuaren ebaluazio orokorra: esparru teorikoa, aurrekariak eta metodologia
 - Proiektuaren garapen maila
 - Proiektuaren bideragarritasuna
 - Eskatzailearen espedientea: CVa eta espediente akademikoa
 - Euskarazko proiektuak lehenetsiko dira

DATAK ETA INFORMAZIOA

- Eskakerak aurkezteko azken eguna: **2025ko ekainaren 10a**.
- Hautatuaren izena argitaratzeko azken eguna: **2025ko ekainaren 20a**.
- Ordainketa erabakia argitaratu eta 90 egunetara egingo da berandue-
nez
- Proiektuari dagokion ikerketa lana bukatua eta idatzita [ikerkuntza@ber-
tsozale.eus](mailto:ikerkuntza@bertsozale.eus) helbidera helarazteko epea: **2026ko ekainaren 20a**, berandu-
enez.
- Bertsozale Elkarteko atarian (www.bertsozale.eus) argitaratuko da deial-
diari buruzko informazioa zein deialdiaren berri.
- Deialdiaren inguruko gorabeherei buruzko galderak honako helbide elek-
tronikora zuzenduko dira: ikerkuntza@bertsozale.eus